



SARI EDERRAK XII. ARGAZKI LEHIAKETAN

Hilabete bukaera arte bidali ditzakezue udako irudiak; 8 argazki finalistak urriaren 3an argitaratuko ditugu > 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-09-08**

VIII. URTEA 2.068. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO


Iritsi da ikasturte berria

HEZKUNTZA Tolosaldeko zein Leitzaldeko ikasle gehienek hasi dituzte jada 2010-2011ko eskolak

LAN ASKO Ikasleak iristen direnerako irakasleek prest dute guztia; oporren aurretik hasten dira guztia atontzen > 4



Hasi da ikasturte berria; eskualdeetako ikastetxeetan herenegun eta atzo bitarte hasi ziren haur eta gazteak. I. GARCIA



Paraje ederrak igarotzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek. HITZA

III. Mendi Martxak «erabateko arrakasta» lortu du

ARESO 350 bat lagun espero bazituzten ere 500 mendizalek hartu zuten parte ibilaldian > 6

Datorren irailaren 11n ospatuko den "Bonberena Sutan" jaialdirako bi sarrera zozkatuko ditugu gure harpidedunen artean

sarrerak eskuratzeko deitu
943-65 56 95 telefono zenbakira



Kultur eskaintza zabala oporraldien ondotik

TOLOSA Bonberena Sutan, Garagardo Festa eta 'Vaya semanita' lana dira horietako batzuk > 2

Larunbateko Bilboko manifestaziora joateko deia egin dute

POLITIKA Adierazi EH! ekimenak autobusak antolatatu ditu > 3

Oporren ostean, eskaintza oparoa

Kultura » Erakusketetan, antzezlanetan eta musika emanaldietan aberats datorrigu iraila; Garagardo Festak hartuko du datorren asteburua.

ERREDAKZIOA

Abuztuko geldialditxoaren ostean, berriro ere betetzen hasi zaigu kulturaren eskaintza. Irailan izango dugu zer ikusi eta dastatu, eta bereziki nabarmendu beharreko ekitaldiak XII. Garagardo Festa, *Vaya Semanita* antzezlanaren estreinaldia edota Bonberenea Sutan musika jaialdia izango ditugu.

Erakusketak

■ **Edurne Pasaban.** Hamalau zortzimilako inguruan erakusketa, Aranburu jauregian, egunero, 17:30etik 20:30era, irailaren 12ra arte.
■ **'Inestable'.** Gko galeriaren ekoizpena, Aranburu jauregian, irailaren 24tik azaroaren 13ra arte.
■ **Tolosako Egutegia.** Argazki lehiaketako irudiak, Aranburu jauregian, irailaren 24tik urriaren 9ra arte.
■ **Panpin animatuak.** Topic zentroan, irailaren 23ra arte, astegunetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta asteburu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
■ **'Azalekoak'.** Nagore Amenabarroren erakusketa Gko galerian, irailaren 11ra bitarte, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteartetik igandera.

■ **Ipuinen baleta.** Lviv-eko Opera Antzokiko Balet Nazionala, Leidorren, irailaren 9an, 20:30ean.
■ **'Vaya Semanita'.** Antzezlan, Leidorren, irailaren 24ean, 20:30ean.
■ **Zinemaldia.** Donostiako Zinemaldiko haurrentzako filma, Leidorren, irailaren 23an, goizean, ikastetxeentzat.
■ **Bonberenea Sutan.** Irailaren 11n, 21:00etatik aurrera, Bonberenean. *Sexty Sexers*, *Doctor Deseo*, *Ama Say*, *Atom Rumba* eta *Anari*. Txartelak salgai Orbela, Eguzki, Denak eta Mescal tabernetan, 15 eurotan.
■ **Tolosako Musika Banda.** Emarnaldia, Garagardo Festaren barruan, irailaren 17an, 20:00etan, Zerkausian.
■ **Tangoa.** Agata elkarteak antolatuta, tango emanaldia, Berdura plazan, irailaren 18an, 18:00etatik 20:30era.
■ **Tolosa Kantari.** Irailaren 25ean, 12:00etatik aurrera, Tontokaletik.

Ikuskizunak eta musika

■ **Jaiak eta Kultur Asteak**
■ **Bedaioko jaiak.** Irailaren 8tik 12ra bitarte.
■ **Extremadurako Astea.** La Jara elkartearen eskutik, irailaren 12ra bitarte.
■ **XI. Garagardo Festa.** Irailaren 16tik 19ra, Zerkausian. Kirol talde-ek eta Udalak antolatuta.



Irailaren 16tik 19ra izango da Garagardo Festa Zerkausian. M. SAN SEBASTIAN

Bestelakoak

■ **Kultur tailerrak.** Matrikulazio epea irailaren 13tik 24ra bitarte, Kultur Etxean.
■ **Odol ateratzea.** Odol emaleen hileroko odol ateratzea, Kultur Etxean.
■ **Fibromialgia eta neke kronikoa.** Fibromialgia eta neke kroniko sin-

dromearen inguruko alderdi medikoak izango dira hizpide, Bizi Bide elkarteak antolatuta, irailaren 29an, Kultur Etxean.
■ **'Eskola hiztun bila'.** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako jardunaldia izango da, Leidor aretoan, irailaren 27an eta 28an.

Extremaduraren Astean murgildu dira La Jaran

ERREDAKZIOA

Urtero garai honetan egokitzen da La Jara elkarteak antolaturiko Extremadurako Astea, eta aurten ere, elkartekoek egitarau zabala antolatu dute aste honetarako, igandera bitarte.

Atzo arratsaldean ekin zioten Kultur Asteari margolanekin eta Extremadurako ohiko materialekin osaturiko erakusketarekin. Umeei zuzenduriko ekitaldiak izan zituzten gero, jokoekin, txokolaterekin eta magia ikuskizunarekin.

Igandera arte ekitaldi ugari zegoen ahalko dute. Larunbatean Plaza Berrian izango den kontzertua ez beste ekitaldi guztiak elkarrean bertan izango dira.

» EGITARUA

Irailak 8, gaur Extremaduraren Eguna

■ **19:30.** Guadalupeko birjinari lore eskaintza.
■ **20:00.** Luntxa bazkide eta gonbidatuekin.

Irailak 9, bihar

■ **19:00.** Lehiaketa: Nork daki gehien Extremaduraren inguruan?
■ **19:30.** Extremadurako ohiko jaiak lehiaketa eta dastaketa: mamiak, patata tortilla, caldereta, pistoa, Extremadurako gazpatxoa eta piper entsalada. Tolosako hainbat elkarteetako bazkidez osaturiko epaimahaik erabakiko ditu plater sarituak.

Irailak 10, etzi

■ **19:00.** Manuel Harina zezenketa adituaren hitzaldia.
■ **21:30.** Erakundeetako ordezkariekin eta La Jara elkarteo bazkide eta lagunekin afaria (izen-ematea 20:00ak arte, 18 euro). Afarian, Flor de Jara abesbatzaren saioa.

Irailak 11, larunbata

■ **16:00.** Karta txapelketa.
■ **20:30.** Aulaga Folc taldearen kontzertua Plaza Berrian.

Irailak 12, igandea

■ **13:00.** Arramele parrokiaren meza, Flor de Jara koruarekin.
■ **13:30.** Toka eta igel-toka.
■ **14:30.** Bazkideen bazkaria.
■ **16:30.** Sari banaketa.
■ **21:00.** Ekitaldien amaiera.



Gaztetxoek ederki igaro zuten atzo arratsaldea, La Jara elkartearen bitartez.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10.

SALGAI

■ **Altzariak.** Egoera onean dauden haritzeko hainbat altzari saltzen ditut. Interesatuak deitu 628 69 88 07 edo 666 61 57 66 telefono zenbakietara.

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta
Bataloak, Jasmartzeak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20100 TOLOSA

@ **Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak, iritziak, ke-xak edota gogoetak sartzeko aukera duzu gure webgunean *Zurea da hitza* izeneko atalean. Informazioarekin batera datuak sartzeari ere gomendatzen dugu:

www.tolosaldeko-hitza.info

Bilboko manifestaziora joateko autobusak jarri dituzte eskualdean

Politika » Adierazi EH! ekimenak deituta hilaren 11n, larunbatean, mobilizazioa egingo da Bilbon.

ASIER IMAZ

Bilbon egingo den manifestaziorako «herri guztietan» zerrendak jarri dituzte eskualdean. Helburua ahalik eta autobus gehien betetzea dela azaldu dute Adierazi EH! ekimenetik.

Jadanik, Anoetatik, Tolosatik eta Villabonatik autobusak irtegaro direla baieztatu dute. Beste herrietan oraindik zehaztu gabe baldin badago ere, zerrendak ohiko lekuetan jarri dituztela azaldu dute manifestazioaren bultzatzaileek.

Anoetan eta Tolosan

Bilboko manifestazio nazionala 17:30ean hasiko da larunbatean, *Denontzat eskubide guztiak Euskal Herri osoan* lelopean. Anoetatik autobusez joan nahi duenak Itzuli tabernan dauka zerrenda. Tolosatik joateko berriz, Raku eta Denak tabernetan jarri dituzte izen emateko orriak. Adierazi EH!tik jakinarazi dutenez, «biztanleriari gonbita luzatzen diegu euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen alde mobiliza daitezen eskatuz; denon artean soilik lortuko baitugu gure eskubideak errespetaraztea».

Eskualdeko gainontzeko herrietan, autobusak osatzeko zerrendak ohiko lekuetan jarri dituztela ere azpimarratu nahi izan dute ekimeneko kideek.

Nork osatzen du Adierazi EH! ekimena

Adierazi EH! Eskubide Zibil eta Politikoen aldeko ekimen herritar honetan biltzen direnak euskal herritarrik dira.

Manifestaziorako deialdia egitean honela aurkeztu ziren: «Sektore eta eremu ezberdinak ordezkatzeko ditugu guk. Jarduera soziala, kulturala, sindikala, politikoa, akademikoa zein kirol jarduera burutzen dugu. Esan beharra trisetela izanik ere, gure jarduera modu gardena eta publikoan burutzen dugula gogora ekarri behar dugu. Eskubide politiko eta zibil oinarrikoen babesturiko honako jarduera, hemen bildu garenon artean ikuspegi ezberdinez burutu izan dugu ordea. Askotan sakoneko ñabardurekin».

» ADIERAZI EH!-REN ADIERAZPENA

Eskubide Zibil eta Politikoen aldeko ekimen herritarra Euskal Herrian

«Euskal Herrian gaur egun, Estatu bien agintepean, ez dira bertoko herritarren oinarriko eskubideak zaintzen. Aitzitik, eguneroko ogia dira gurean giza eskubideen bor txaketak, eta okerrera doaz egunerokotik egunerora, jasanezina bihurtuz egoera. Ez dugu onartzen egoera hau, eta gehiago luzatzen ez uztea erabaki dugu gainera».

Ekimen herritarra gara

«Euskal Herri osoan egoera berria sortzea deitzen zaituztegu; horretarako erabakitazue eta berehala elkarrekin ekitera, ideiak eta iritziak modu librean plazaratzeko aukera sortu behar dugu, inolako jazarpen, debeku, epai edo zigorririk gabe, eta ideia eta erabaki libre horiek izan daitezela gure herriaren antolaketa demokratiko berriaren oinarri sendoak».

■ Azpimarratzeko puntuak:

«Iritzi-askatasuna; Adierazpen-askatasuna; Elkartzeko eta politikari aritzeko askatasuna; Manifestazioak egiteko askatasuna; Intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea; Justiziarako giza-eskubidea; Botoa emateko eskubidea; Hautagai izateko eskubidea eta Egoera konpontzeko eta demokratizazioa ezartzeko eskubidea».

Euskal Herriaren etorkizun librea irabazi

«Aurrea hartu, ekin».
«Euskal herritarrok oro deitzen zaituztegu eskubide zibil eta politikoen aldeko sare hau antolatzea, herriz herri eta arloz arlo sarea jostera, Euskal Herri osora hedatu arte. Hainbat arinen eta modu sendoan hedatu behar dugu sarea, gaurko egoera honetatik lehenbait lehen irten eta etorkizun librea bermatu behar baitugu Euskal Herriari».

Sorosle Titulua eskuratzeko aukera eskainiko du DYAk

Tolosa » Hiru aste iraungo duen ikastaroan parte hartzeko aukera biztanleria osoak edukiko du.

telehenetik ostiralera. Ikastaroa Tolosako DYArekin Ordezkaritzan izango da, hau da, Larramendi 7 behean.

Sorosle Titulua eta bi kreditu

Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroan, «kontuan izanik ez dela beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea», egunerokotasunean aurki ditzakegun arriskuei nola erantzun erakutsiko da: «Bihotz eta birika suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak... Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketen hauek, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ukituaz»

azaldu dute DYA Gipuzkoatik. Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzeko dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du.

Modu berean, ikastaro haugainditzeko duenak, Euskal Herriko Unibertsitatetik bi kreditu jasotzeko aukera izango du.

Matrikularen kostea, ikastaroako txostena barne, 90 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua izango da, «ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren». Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

Laburrak

Leidorren baleta ikusteko aukera egongo da bihar

TOLOSA » Opera Lviveko Antzerki Balet Nazionalak bere azken ikuskizuna aurkeztuko du bihar, hilak 9, Tolosako Leidor aretoan. 20:30ean hasiko da emanaldia eta sarrerak egunean bertan eskuratu ahaliko dira aretoko leihaletan. Prezioa 10 eurokoa da. Txarteldegia bi ordu lehenago zabalduko ditzutela jakinarazi dute udal ordezkariak. Opera Lviveko kideak Ukrainatik etorriko dira Tolosara.

TAKE Saskibaloi Eskolan izena emateko aukera

TOLOSA » TAKE Saskibaloi Eskola urriaren 1ean jarriko dute martxan eta 2011ko maiatzaren 27an amaituko da. Ikastaroak ostiralero izango dira Usabal kiroldegian, 17:30etik 19:00etara. Eskolaren arduraduna «goi mailako entrenatzaile bat izango da, bere laguntzaileekin». Hileko kuota 12 eurokoa izango da. 1999, 2000, 2001 eta 2002 urteetan jaiotako neska-mutulei zuzendurik dago Saskibaloi Eskola. Bertan izena ematen dutenek ekipazio bana jasoko dute oparitan eta irteera desberdinetan parte hartzeko aukera ere izango dute. Izena emateko takesb@takesb.com helbidera idatzi edo zuzendaritzako kideren batekin harremanetan jarri behar da.

Kantu-jirako entsegua gaur 20:00etan

TOLOSA » Hilero kantu-jira prestatzeko, irailaren 25eko, gaur 20:00etan entsegua saioa egingo dute Musika Eskolako instalazioetan, Tolosa Kantari taldeak antolatuta. Hil honetako kantu-jiran

abestuko diren kantuei erreparatu bat emango zaie, eta mundu guztia gonbidatuta dago parte hartzerako.

Haur ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

TOLOSA » Udako opporraldia amaitzearekin batera, ate joka da ikasturte berria. Udaberri dantza taldekoak ere hastear dira ikastaroekin, eta haubetarako izena emateko aukerak zabaldu dituzte. Haur ikastaroetan izena emateko aukera izango da bihar eta etzi, hau da, hilaren 9an eta 10ean, 17:00etatik 20:00etara Tolosako Kultur Etxean. Entseguekin irailaren hirugarren astean hasiko dira, irailaren 17an eta 18an, eta taldeen zerrendak eta ordutegiak www.udaberri.com web orrian jarriko dituzte ikusgai prest izan bezain pronto.

Zaldi Lasterketa hilaren 19an izango da azkenean

ZIZURKIL » Zizurkilgo IX. Zaldi Lasterketa irailaren 19an izango da Zizurkil Goian. Zer ote gidan irailaren 26rako iragarrita agertzen da Lasterketa, baina azken aldaketan osten hilaren 19an egitea erabaki dute antolatzaileek. Honenbestez, Zizurkilgo IX. Zaldi Lasterketa 18:00etan hasiko da irailaren 19an.

Euskal Herria Egunera joango dira hilaren 18an

IBARRA » Ibarra eta Lizarraren artean Euskal Herria Eguna antolatuta dute irailaren 18an, Lizarran. Bi herrien arteko senidetze ekitaldian ibartar guztiak gonbidatu dituzte. Autobusez joateko izena emateko behar da ohiko lekuetan.

Mendi irteera hilaren 12an

Tolosa » Alpino Uzturre elkarteak 6 ordu inguruko ibilbidea antolatu du. Autobusa 07:30ean irtegaro da.



ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre elkarteak irailaren 12rako mendi irteera antolatu du. Txangoa Berantevillatik hasi eta Labastidan bukatuko da. Tartean Toloño (1271 m) mendia igoko da. Ibilbidea sei ordukoa dela azaldu dute Alpinoak kideak.

Bertara joateko autobusa Tolosatik, San Frantziskotik, irtegaro da.

igandean 07:30ean. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 13.

Irteeraren inguruko informazio

gehiago lortzeko edo izena emateko, 943 65 27 89 telefono zenbakira deitu behar da edo alpinouzturre@hotmail.com-era idatzi.



Samaniegoko ikasleak autobusetara bidean atzo. Antolakuntzak garrantzi handia du lehen egunean. I. GARCIA



Hirukide Jesuitinetako jolastokian hainbat ikasle jolasean atzo eguerdian. I. GARCIA

Ekin diote ikasturte berriari

Hezkuntza » Batzuk aste honetan ekin diote eta beste batzuk hastear daude bai Tolosaldean eta baita Leitzaldean ere 2010-2011 ikasturtari.

IMANOL GARCIA

Gizartean eragin handia duen eguna heldu da gurean: ikasturte hasiera. Eskolak hainbat gauza baldintzatzen ditu. Ikasle eta irakasleen jarduna, noski, eta baita gurasoen ere. Oporrak bukatu direnaren seinale izaten da familia askorentzat.

Tolosaldean eta Leitzaldean aste honetan ekin diote ikasturte berriari. Leitzan eta Areson herenegun hasi ziren. Tolosan, Laskorain Ikastolakoak herenegun hasi ziren, aldiz Samaniegokoek eta Hirukidekoek atzo izan zuten lehen eguna. Beste zenbait herritan gaur hasiko dira. Lizartza da salbuespena, festak direla eta etzi hasiko baitira.

Egun berezia

Lehen eguna berezia da. Bi hilabete baino gehiago eskolatik kanpo egon ondoren, ikasle uholdea sartzen da ateetatik. Batzuk aurpegi alaiekin, beste batzuk tristeago, eta baten batek malkoren bat isuriz, batez ere txikien artean.

«Denentzako, ikasle, irakasle, guraso... izaten da berezia lehen eguna», azaltzen du Txaro Etxeberria Hirukide Jesuitinetako orientatzaileak. Ikasturtea hasteko egiten diren prestakuntzak nabarmentzen ditu: «Taldek ziklo bukaeretan aldatzen ditugu, baina hori asko zaintzen dugu. Kohesio ariketak, taldeak berriro egitea... egokitzen horri ikaragarriko garrantzi handia ematen diegu». Maria Angeles Elortzak gaineratzen duenez, «lehen eguneko urduritasunak pasatuta, normal hasten dira».

Samaniegoko ere aurretik egin dakolana azpimarratzen dute. Mikel Izagirre zuzendariak azaltzen duenez, «aurretik egiten da lana. Ikasleak etortzerako dena prest egon behar da. Lehenengo eguneko gehiago izaten da ikasleen egonezinak, urduritasuna. Baina hori mementoko kontua izaten da». Lourdes Sarasua ikasketa buruak gaineratzen duenez, «irakasleak jakinaren gainean daude, zein egongo den jangelan, zein joango den etxera, zein egongo den ludotekan...».

Bi urtekoak gaur hasiko dira. «Lehenengo eguneko zalaparta ekiditen diegu», azaltzen du Sarasua. Urduritasunak ere taldeka-

tze berriekin etortzen dira. «Haur Hezkuntzako eraikinetik Lehen Hezkuntzara joaten direnean ere, saiatzen gara aurreko urteko andereñoarekin joatean», azaltzen du Sarasua. «Taldekatzeko berriak jolasen bidez egiten ditugu. Ahal den neurrian aldaketa lasaien egiten saiatzen gara», gaineratzen du Izagirrek.

Laskorain Ikastolako Kepa Goikoetxea zuzendariordeak dioenez, «beste garai batean, irakasleak hasi eta ikasleak hasi bitartean denbora gehiago izaten zen. Orain abuztuaren etorri behar da prestatuta. Irailaren lehen hasi eta 6an ikasleak hemen daude». Zuzendariak prestatuta lanak egiten ditu uztailean. «Lehenengo egunetan motorra martxan jartzea izaten da».

Mila Begiristain Batxilergoko koordinatzaileak zehazten duenez, «Batxilerran gela guztiak ez dira aukera berdinekoak». Horregatik hasieran nahaste batzuk izaten dira ikasleen artean jakin arte zein geletan dituzten ikasgaiak. «Baina segituan hartzen da martxa». Goikoetxeak gaineratzen duenez, «bigarren egunerako badirudi oporrak ez direla izan eta ikasleak urte osoko martxan jartzen dira».

Zenbait berrikuntza

Ikasturte honetarako Hirukiden zenbait berrikuntza izango dituzte. «Alde batetik, Curriculumak eskatzen duenaren baino ordu gehiago sartuko ditugu aurten ere ingelesean», azaltzen du Txaro Etxeberria. Bestalde, «Bizikidetzan proiektu indartsua martxan jartzera goaz ikasturte honetan: ikasleen arteko bitartekaritza zerbitzua, hau da, ikasleek gatazka dutenean beste ikasle batzuk izango dira bitartekariak. Horrekin ilusionatuta gaude. Beste gai bat arbele digitalak dira, bosgarren mailako administrazioak jarri dizkiete eta guk bosturteko geletan ere jarri ditugu».

Laskorain Ikastola Hezkuntza Sailetik martxan jarri den hiru eleko ereduaren egitasmoaren baitan daude. Bestalde Ikasiz eta Eskola 2.0 proiektuek zabalkunde handiagoa izango dute eta Batxilergoan Mundu Garaikiderako Zientziak ikasgai ingelesez jasoko dute ikasle erdiek.

**ZUMARRAGA-URRETXUKO
DUATLOI HERRIKOIA**

Irailak 11 Septiembre	 3 km.	 12,5 km.	 1,5 km.	Ordua Hora 17,00
IZEN EMATEA: www.triatloi.org				

Oporretako argazki ederren zain

XII. HITZA Argazki Lehiaketa » Pixkanaka-pixkanaka ari gara jasotzen irakurleen oporraldietako irudiak.

ERREDAKZIOA

Mantso-mantso bada ere ari gara jasotzen XII. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko argazkiak.

Ikasturtea hasi besterik ez da egin, eta seguru bat baino gehiagok ez duela izan oporraldietako argazkiak txukuntzeko denborarik ere, baina lasai, Lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 30ean amaituko da eta.

Esan bezala argazkiak hilabete bukaera bitarte jasoko ditugu, eta ondoren, guztien artean 8 onenak aukeratuko ditugu, gero, harpidedunek, hauen artean hiru aukeratu ahal izateko.

Epeak

Epeei dagokionez, hortaz, hilaren 30a arte jasotzen ditugun argazkien artean epaimahaiak aukeratuak 8ak urriaren 3an argitaratuko ditugu eta harpidedunek urriaren 4tik 8a bitarte bozkatu ahal izango dute zein den gehien gustatzen zaien argazkia. Horretarako TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO Tolosako bulegora deitu beharko dute (943 65 56 95) eta harpidedun kodea zehaztu edota tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info helbidearen bidez gauza bera egin.

Hori baino lehen, hala ere, argazkiak biltzen jarraitu nahi dugu. Argazkiak argazkiak@tolosaldeko HITZA.info helbidera bidali behar dituzue edota Tolosako bulegora bidali (Araba etorbidea, 5, atzea).

Beheran ikusi ahal duzuen bezala, hiru sari eder irabazi ditzakezue: Eako Andutza landetxean bi pertsonentzako bi gau, Getariako Gure Ametsa landetxean bi pertsonentzako gau bat eta Gorrotxategi Gozotegiak eskainitako saski

berezia. Era berean, parte-hartzaile eta bozka ematen duten guztien artean HITZAKO materiala ere zozketatuko dugu.


» HAINBAT DATU

Parte hartzeko kontuan hartu beharreko baldintzak

- Aurkeztutako argazkiak azken udako oporraldikoak behar dute izan.
- Paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen dira.
- Bidaltzeko aukerak: posta elektronikoz (argazkiak@tolosaldeko HITZA.info) edota posta arruntez egin daiteke (Araba etorbidea 5, atzea. 20.400 Tolosa).
- Bidaltzen dituzuen argazki digitalak, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbaki bat. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten den adierazi beharko da.
- Jasotako argazkiak artxi boan gordeko ditugu, eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK behar dituzenean argitaratu ahal izango dituzelarik.
- Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira Lehiaketan eta era berean jasotako argazki guztiak paperean argitaratzen ere saiatuko da.
- Bidaltzen dituzuen argazki guztiak iristen joan ahala HITZAREN webgunean izango dira ikusgai.
- Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali dezake.



Joana Grezian izan da eta Epidauroko argazki hau bidali du: «Antzina antzerkiak egiteko erabiltzen zuten eraikinean, Epidauroaren goian jarri eta behean esaten zena entzuten zela frogatu genuen. Benetan harrigarria garai haietan jada honelako gauzak egiteko prest izatea». JOANA REGUERO



Baldayoko padurako irudi hau aukeratu du Ttikik: «Baldayoko paduran eguzkia ezkatutzen ari zela zubitik zaldiak igarotzen. Paisaia hori baino ederragorik!». TTIKI

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa

Animatu eta
parte hartu!

NORA
BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko HITZA.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

Getariako landetxean bi gau

2. Saria

Getariako landetxean bi gau

3. Saria

Getariako landetxean bi gau

Parte-hartzaileak HITZAKO materiala zozketatuko dugu

Eguraldia lagun, Aresoko III. Mendi Martxan, marka guztiak hautsi dira

Areso » Herriko plazatik 500 lagun atera ziren. Aurreikuspen guztiak hankaz gora jarrita ere, gustura geratu dira.



Mendizaleek bista ederrak ikusteko aukera izan zuten. HITZA

ENERITZ MAIZ

Igandean, Aresoko III. Mendi Martxa izan zen. Goizean goizetik eguraldi ezin hobea izan zen eta jende ugari animatu zen ibilbidea egitera. 500 mendizaleak, herriko plazatik abiatu eta Ulizar, Urkiza, Pagozelai eta Lau Mugarrietatik igaro ziren.

Aresoko Udalak, Plazaola Partzuergo Turistikoarekin eta Kirol Mankomunitatearekin batera antolatzen du. Hirugarren urtez jarraian antolatu duten ibilaldia, Nafarroako Mendi martxen zirkuituan sartu dute. Urteik urtera, hobetzen doaz eta aurten, internet bidez izena emateko aukera izan dute parte hartzaileek. Egunaren aurretik, 240 lagunek eman zuten ibilbidean ateratzeko izena. Iaz 277 atera zirela kontuan izanda, 350 lagun inguru izango zirenen kalkulua egin zuten antolatzailerak. Guztia prest jarri eta egunean bertan izan zuten ezustekorik handiena. Beste 260 lagunek eman zuten izena. Ura, opariak,.... faltan geratu ziren baina Ruben Goñi, Kirol Mankomunitateko teknikariak adierazi digunez, «nahiz eta aurreikuspen guztiak hankaz gora jarri, pozik gaude. Erabateko arrakasta izan zen eta egun batean, Areso herria hirukoiztu egin zen» gaineratu du. Kexa batzuk tarteko guztia ongi ateratu zuten.

Teknikariak adierazi digunez, kamiseten faltan geratu dira eta gehiago eskatu behar izan dituzte. Gero korreoz bidaliko dizkiete gabe geratu ziren mendizaleei.

Hobe izena aurretik ematea

Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroatik joandako jendea izan zen Areson. Nafarroako Mendi Martxen zirkuituan sartzeak eragina izango zuen. Hala ere, Ruben Goñi teknikariak «datorren urterako, parte hartzaileei, izen ematea internet bidez egitera animatzeko esango nieke. Azken unera arte askok ez du jakiten zer egin behar duen baina, aurreikuspenak egiteko asko lagunduko liguke» azpimarratu du.

Parte hartzaileek, asko eskertu zuten ibilbidea egin ostean, herriko plazan emandako paella eta sargardoa. Sariak ere zozketatu zituzten.

Berrogei bat lagun ibili ziren lanean, III. Mendi Martxa ongi ateratu zedin. 30 bat lagun ibilbidean zehar banatuta egon ziren eta gainerakoak, paella prestatzen.

Eta dagoeneko, aurtengo datuak ematearekin batera, datorren urterako zer hobetu behar duten pentsatzen ari dira. Beraz, hurrengabe geratu ziren mendizaleei.



Paella ederra ere jan zuten 300 bat lagunek. HITZA

Ikasturterako xakearen inguruko aukera zabala prestatu dute

Anoeta » Bihartik hasita Xake Txapelketak izango dira irailean zehar. Izen emateak zabalik daude.

E. MAIZ

Xakea herrian txertatzeko, herriko tabernetako terrazatan xake txapelketak antolatuko dira. LH1 eta LH6 maila bitarteko ikasleek parte har dezakete. Irailak 9, 10, 13, 14, 20, 21 eta 28an izango da. Itzuli, Arkupe, Haizea, Buztina, Goikoe-txea, Alkartasuna jubilatua eta Laia tabernetan. Txapelketak 16:00etan hasiko dira, eta trofeo bategongo da egun bakoitzeko irabazlearentzat, bertako tabernariak emanda. Izena ematea, gaur, 15ean eta 22an, 17:15etik 18:45era udaletxeko arkupeetan.

Txokoa, ikastaroak eta liga

Inongo konpromisorik gabe azaldu daiteke xake txokora. LH1 eta LH6 bitarteko ikasleentzat da. Urriaren letik ekainaren 10era, ostiraletan 17:15etik 20:15era izango da Hozpel Kaleko udal lokalean. Ikasturte osoa 15 euro izango da.

LH1 eta LH2ko ikasleentzat, Udalak ikastaroak antolatu ditu. Urriaren letik ekainaren 17a bitarteko. Klaseak Ikastolan, astean behin izango dira eta 15,68 euro ordaindu behar da hiruhilabetekoa. Ordutegia: 17:15etik 18:15era izango da. LH3tik aurrera, Ikastolak antolatuta, eskola kirola barruan doan izango da.

Liga LH3tik aurrera izango da, urriaren letik ekainaren 17a bitarteko. Astearteetan 18:30etik 19:30era Ikastolan, 15,68 euro hiruhilabetekoan ordainduz. Hiru kasuetan, izena ematea, gaur, 15ean eta 22an 17:15etik 18:45era, udaletxeko arkupeetan egin ahaliko da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Berrikuntza ugari Belabietako ikastaroetan

ERREDAKZIOA

Ibarrako Belabietako kiroldegia ikasturte berria abiarazi du jada eta eskainiko dituen ikastaro desberdinak ere prest ditu.

2010-2011 ikasturtean berrikuntza ugari ere aurkeztu dituzte, izan ere, *cycling*-a eskainiko dute goizez, *pilates*-a gauzez eta ikastaro

berriak ere badituzte, *multifitness* eta *bosu-gap* izenekoak (goizez eta arratsaldez), hain zuzen. Era berean, nabarmendu behar da ikastaroak enpresa berri batek eskainiko dituela, Bpxport-ek.

Ikastaroetan izena eman nahi duenak Kiroldegira bertara jo beharko du.

» IKASTAROA

■ **Multifitness.** Astearte eta ostegunak (11:00-20:30) eta astelehena eta asteazkenak (19:00). Bazkideek 62,86 euro eta ez bazkideek 86,6 euro.

■ **Pilates.** Astearte eta ostegunak (10:00-16:30-19:30). Bazkideek 62,86 euro eta ez bazkideek 86,6.

■ **3. adinekoen gimnasia.** Astearte eta ostegunak (09:00). Doan.

■ **Yoga.** Astelehen eta asteazkenak (11:00) eta astearte eta ostegunak (15:15). Bazkideek 61 euro, gainontzekoek 86,6.

■ **Cycling.** Astelehen eta asteazkenak (19:00) eta astearte eta ostegunak (09:30-18:30-19:30-20:30). Bazkideek 62,86 euro, gainontzekoek 86,6.

■ **Cycling + Master Clas.** Ostiralak (20:00). Bazkideek 84 euro, gainontzekoek 115,5.

■ **Tai-chi.** Astelehen eta asteazkenak (20:00) eta asteazken eta ostiralak (09:30). Bazkideek 61 euro, ez bazkideek 86,6.

■ **Bosu-gap.** Astelehen eta asteazkenak (15:15) eta astearte eta ostegunak (18:30). Bazkideek 62,86 euro, besteek 86,6.

Kutxako tailerretan izena emateko aukera

Gizartea » Gaurtik aurrera eman daitezke izena Belauntzan, Berrobin eta Tolosan izango diren ikastaroetan.

ERREDAKZIOA

Aulas Kutxa izeneko ekimenaren baitan ikastaro desberdinak burutu ahal izango dira ikasturte honetan ere, Tolosan, Belauntzan eta Berrobin.

Belauntzari dagokionez, Kultur Etxearen laguntzarekin, lorategien zainketa inguruko ikastaroa egingo dute.

Berrobin, aldiz, dantza latinoak ikasi ahal izango dituzte San Andres Ikastetxearen laguntzarekin. Eta Tolosan, bere aldetik, Consulatec, Txinparta elkarte, Zuentzart

eta Kultur Etxearen laguntzarekin ikastaro ugari izango dituzte: Photoshoparekin argazkiak moldatzeko; kontserbak egiteko; uda eta gero azala zaintzeko oinarriko aholkuak ematen dituen eta makillatzeko ikasteko; eta arropak konpontzeko, azkenik.

Hilaren 18a arte

Izena emateko epea gaur bertan zabaldu dute eta hilaren 18a arte luzatuko da. Horretarako 08:00etatik 14:30era deitu beharko da 902-54 00 40 telefono zenbakira edota www.kutxasocial.net webgunearen bidez egin.

Izena emateko 16 urte baino gehiago izan behar dira eta Kutxan kontu korrontea eduki, Urre-koloreko Txartela dutenek edota Gazte kutxa dutenek %20ko beherapena izango dutelarik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Arrospide Urrezko Aizkolari Txapelketako jardunaldian, gaur

Leaburu » Larretxearen kontra ariko da Urdulizen 12:30etik aurrera; sailkapen orokorreko bigarrena da.

ERREDAKZIOA

Leaburuko Anjel Arrospide Urrezko Aizkolari Txapelaldun Ligako seigarren jardunaldian ariko da gaur, 12:30etik aurrera. Beraiko (Nafarroa) Donato Larretxea izango du aurkari txapelketako seigarren jardunaldi honetan Urdulizen (Bizkaia).

Arratsalde, Ordizian

Era berean, 19:00etik aurrera Ordizian izango da zazpigarren jardunaldia eta bertan Donato Larretxearekin batera, Juan Jose Lopez Azpillikueta izango da.

Sailkapen orokorrari dagokionez, bost jardunaldi eta gero, Floren Nazabal da nagusi hiru alditan



Anjel Arrospide gaur izango da Urdulizen. I. LAHALDALGA

lortutako 6 puntuei esker. Bigarren Anjel Arrospide da bi jardunalditan 3 puntu lortu dituelarik. Hirugarren, aldiz, Jose Mari Olasagasti da bi jardunalditan eskura-

tutako 2 punturi esker. Sailkapen orokorreko azkena, laugarrena, hain zuzen, Juan Jose Lopez Azpillikueta da jardunaldi bakarrean puntu bakarra lortu eta gero.

www.euskalherrikoPLaza.com



skunkfunk %20

Lehen: 31,53 € Orain: 25,22 €	Lehen: 19,83 € Orain: 15,86 €	Lehen: 66,12 € Orain: 52,9 €
----------------------------------	----------------------------------	---------------------------------

okot %20

Lehen: 28,48 € Orain: 22,78 €	Lehen: 57,17 € Orain: 45,74 €	Lehen: 28,48 € Orain: 22,78 €
----------------------------------	----------------------------------	----------------------------------

20 €

20 €

20 €

TTAK

2 elastiko 35 €



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Alkiza.** 10:00etan meza nagusia; 12:00etan toka txapelketa haur-errentzat; 14:00etan jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean; 17:00etan gaztetxoan pilota partidak; 18:00etan toka helduentzat; ondoren, trikitixa Jon Ostolaza eta Aitzol Txapartegirekin.
■ **Bedaio.** 10:00etan suziria; 11:00etan, meza nagusia; ondoren, Mañukorta eta Zeberio bertsolariak; 12:00etan, Abaetxe taberna-jatetxearen irekiera festa, bertsolariekin eta trikitilariekin; 14:00etan, jubilatuen omenez bazkaria; ondoren, bertsolarien eta trikitilarien saioa; 17:00etan, pilota; 17:30ean, ipuin kontalaria; 19:00etan, toka; 21:00etan, afari herrikoa.
■ **Elduain.** 11:00etan, meza nagusia; ondoren hamaiketako Kontzejun; 17:00etan, umeen antzerkia; ondoren, Falconeria (cetreria) eta Gorriti eta bere animaliak.
■ **Lizartza.** 10:00etan goiz deia; 11:30ean gaztetxoan pilota partidak; 11:45ean hamaiketako Txirrita elkartean; 14:00etan helduen bazkaria eta 18:30ean Otsolar dantza taldearen emanaldia.
■ **Zizurkil.** Elbarrena auzoko jaiak: 19:00etan III. Kros mistoa; 20:30ean txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena Atxulondotik Patrikanzulo eta Txoritxoak blusekin; ondoren buruhandiak eta trikitilariak; 21:30ean afaria Pasmus jatetxearen eskutik; 24:30ean Jun da Jo txaranga; 03:00etan karaokea.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Ikastolaren aurreko bideak bi noranzko

TOLOSA ● Irgan larunbatetik aurrera, bi noranzkotan zeharkatu ahal da lurreamendi eta Iruña etorbidea lotzen dituen errepidetik, hau da, Laskorain ikastolaren aurrealdetik. Lehen aparkaleku bezala zegoen gunen hori Usabal kiroldegira daraman zubira arte, eta hori kendu, eta beste errail

bat egiteko baliatu dute. Erabakiak kontrako iritziak jaso dituen arren, Udalaren arabera bai kiroldegira bai eta hiriaren irteerara joateko erraztasuna eskainiko du errail berriak. Hori bai, tonaje handiko kamioiek ezin go dutela bertatik igaro adierazi dute. i.e.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak jaioberriak
urrezko ezteiak jaunartzeak...
ezkontzak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>